

GAKO EKONOMIKOAK

- Covid-19aren aurkako txertaketa kanpainaren hasiera, Brexiterako akordioa eta AEBtan pizgarrien pakete berria onartzea, kutsatzeen igoeraren eta birusaren mutazio berriaren testuinguruan.
- Igoera orokorrak burtsetan, Ibexaren kasuan izan ezik, zeinak lau itxi duen.
- Tasen igoera AEBtan eta egonkortasuna Europan. Zor periferikoa eta kredituaren, diferentzialak hobetuz.
- Dolarraren ahultzea eta petrolioaren igoera.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Urteko azken hilabetean Covid-19aren eboluzioa, Brexita eta Amerikako zerga pizgarrien pakete berria onartzea izan dira gertakari nabarmenenak. Pandemiak aurrera jarraitu ahala, osasun arloko berriak taldeko immunizazioa lortzeko abian jarritako txertoak jartzeko kanpainaren inguruan ziren. Hilean zehar hiru txerto baimendu direnean (Pfizer, Moderna eta Oxford/AstraZeneca), birusaren mutazio berri bat agertzeak berriz ekarri zuen ziurgabetasuna, aurrekoa baino kutsakorragoa baita, eta neurri berriak hartu behar izan ziren, haien eragin ekonomikoarekin. Arlo politikoan, hilaren bukaeran, 10 hilabete inguruz negoziatzen aritu ondoren, eta trantsizio aldia bukatzeko astebete falta zenean, Europar Batasunak eta Erresuma Batuak adostasun batera iritsi ziren hausteko moduaren inguruan, Erresuma Batuak 48 urtez europar proiektuan parte hartu ondoren. Europan Asiako Erraldoiarekin ibitako akordioa ezagutu genuen, Txinako merkatuari europar inbertsioetarako sarbidea errazteko helburuarekin. Atlantikoaren beste aldean, hileko azken astean 2021eko aurrekontuak eta zerga pizgarrien pakete berria sinatu ziren. Sinatze horrekin, Trumpek amaiera ematen zion Administrazioaren blokeoari, eta hurrengo urteko irailera arte bermatu zuen haren funtzionamendua. Kongresuak, ondorioz, orain arte adostutako transferentzien zenbatekoaren 600 euroko igoera onartu behar izan zuen. Handik egun batzuetara, McConnell-ek ordainketa zuzenak 2.000 dolarrera igotzeko Lege proiektua atzera bota zuen eta, dirudienez, 2021ra arte itxaron beharko dugu nola bukatzen den ikusteko. Bestetik, uneko presidentek, urtea bukatzeaz zegoenean, eta itxura denez agintzen duen bitartean bere azterna utzi nahi duela eta, Europako hainbat produkturi muga-zergak igoko dizkiela adierazi du, gai aeronautikoei edo Frantziako zein Alemaniako ardoei, esaterako. Diru politika arloan, erakunde desberdinek egindako azken bileren ondoren, Europan BCEak inbertitzaileengandik espero zena betetzen zela ikusi genuen eta pizgarrien plana espero zein intentsitatearekin areagotu zen eta 2022ko martxora arte luzatu zen. AEBan, FEDak ez zuen aldaketarik egin diru politikan, ezta Ingalaterrako Bankuak eta Japoniako Bankuak ere.

ERRENTA ALDAKORRA

Abenduan positiboan itxi dituzte plaza nagusiak. Azaroko euforiaren ondoren, non bi digituko igoerak izan ziren, hilaren lehenengo zatian hobetze ekonomikoko funtsaren blokeoa, Amerikako zerga paketearen onespeneraren inguruko zalantzak eta Brexita izan dira aipagarrienak. Izan ere, urte bukaerara gerturatu ahala, eta banku zentralak baldintzarik gabe funtsekin lagundu ondoren, merkatuek baikortasunez hartu zuten gatazka horiek konpontzea. Beraz, Ipar Koreako adierazleek historiako balio maximo berriekekin itxi zuten urtea, S&P500 indizearen % 3,71ko, Dow Jones indizearen % 3,27 eta Nasdaq indizearen % 5,05eko igoerekin abenduan. Europan, Eurostoxx indizeak ere berdean itxi zuen hilea % 1,72ko igoerarekin. Nazioarteko gainerako merkatuetan, Nikkei azken 30 urteotako maximoetara iritsi zen eta abendua % 3,82ko igoerarekin itxi zuen. Emergenteak, aldiz, oro har, % 7,15 igo ziren. Salbuespena espainiar burtsa izan zen. Ia batere aldaketarik gabe itxi zuen hila, azaroan irabazi gehien izan ondoren, % 25ekoa alegia.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.073,70	EUR	%-0,04	%-15,45
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.552,64	EUR	%1,72	%-5,14
S&P-500	AEB	3.756,07	USD	%3,71	%16,26
DOW JONES	AEB	30.606,48	USD	%3,27	%7,25
NASDAQ 100	AEB	12.888,28	USD	%5,05	%47,58
NIKKEI-225	JAPONIA	27.444,17	JPY	%3,82	%16,01
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.291,26	USD	%7,15	%15,84
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.690,04	EUR	%4,14	%14,06

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Mugimendu gutxi Alemaniako zor subiranoko errentagarritasunetan, eta tasen gorakada Atlantikoaren beste aldean. 10 urterako bonu germanikoak -% 0,57arekin itxi zuen, eta amerikarrak, aldiz, abenduan igo bazen ere, % 0,90etik gora jarri zen, 2020an oinarritzko 100 puntuak jaitsi ondoren. Espainiar zorraren kasuan, 10 urterako bonuaren errentagarritasunak % 0-tik gora (%0,05) bukatu zuen eta arrisku prima 3pbs murriztu zen, 62pbs arte. Kredituak, bestetik, diferentzialak estutu zituen, kreditu kalitate eskaseneko bonuen kasuan bereziki.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,55	0,00	-0,16
	6 HIL.	-0,53	0,00	-0,20
	12 HIL.	-0,50	0,00	-0,25
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,70	0,04	-0,10
	5 URTE	-0,74	0,02	-0,27
	10 URTE	-0,57	0,00	-0,38
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,63	-0,04	-0,24
	5 URTE	-0,39	-0,02	-0,32
	10 URTE	0,05	-0,03	-0,42

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Dolarrak ahul jarraitzen du euroarekiko, zeinaren truke tasa maximoetan jarraitzen duen 2018az geroztik. Lehengaiei dagokienez, petrolioaren prezioa % 8,48 igo zen abenduan, jardura pixkanaka berreskuratzen joango dela eta, ondorioz, otsailetik aurrera OPEParen gordin ekoizpen maila mantentzen dela aurreikusita.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg